



Donostia, 2014ko uztaiaren 7a
San Sebastián, a 7 de julio de 2014

ELKARTU DIRA

Alde batetik, **IÑAKI ERRAZKIN VITORIA** jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean ari dena.

Eta bestetik, **IÑIGO ANSOLA KAREAGA** jauna, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dizkion eskumenak betez.

Esku hartzaileek lankidetzaz hitzarmen hau egiteko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta horretarako, honako hau,

AZALTZEN DUTE

Fraisoro finka Zizurkilgo Elbarrena auzoan kokatzen da. Finkak 30 ha ditu eta Zizurkil eta Villabona udalerrietako lurretan barna hedatzen da. Finkaren barruan zentro hauek daude:

- Itsamendikoi nekazaritza eskola.
- Matia Fundazioa. Geriatrikoa eta Eguneko Zentroa adineko edota ezinduentzat.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren nekazaritza eta ingurumen laborategia.
- Uliazpi Fundazioa. Egoitza eta Eguneko Zentroa ezinduentzat.

Zentro guztiak Fraisoro errearen ezkerreko ertzean daude, Zizurkil eta Villabonako udalerrien artean sortzen den muga naturalean, hain zuzen ere.

Zentro horien saneamendurako kolektore bat dago gaur egun, zentro gorenetik abiatu (nekazaritza eskola) eta mendi-hegaletik Oria ibairaino jaisten dena, gainerako zentroen isuriak ere jasotzen dituela. Kolektore horren egoera oso txarra da: euri-ur asko sartzen zaio, hausturak

REUNIDOS

De una parte, el Sr. **D. IÑAKI ERRAZKIN VITORIA**, en su condición de Diputado del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y en representación legal de la misma.

Y de otra parte, el Sr. **D. IÑIGO ANSOLA KAREAGA** en su condición de Director General de la Agencia Vasca del Agua, y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente Convenio de colaboración y a tal efecto

EXPONEN

La finca Fraisoro se localiza junto al barrio Elbarrena de Zizurkil. Posee una superficie de unas 30 Has y se extiende por terrenos pertenecientes a los términos de Zizurkil y Villabona. Dentro de la finca se encuentran ubicados los siguientes centros:

- Escuela Agraria Itsamendikoi.
- Matia Fundazioa. Geriátrico y Centro de Día para personas mayores y/o discapacitadas.
- Laboratorio Agroambiental de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Fundación Uliazpi. Residencia y Centro de Día para personas discapacitadas.

Todos los centros se localizan en la margen izquierda de la regata Fraisoro, que forma la muga natural entre los términos municipales de Zizurkil y Villabona.

Para el saneamiento de estos centros se cuenta en la actualidad con un colector, que partiendo desde el centro más alto, la Escuela Agraria, desciende por la ladera hasta su punto de vertido en el río Oria, recogiendo puntualmente los vertidos de los otros centros. La situación de este



ditu, eta abar. Horren ondorioz, ibaian gora urak eta hondakin solidoak atera egiten dira eta Oria ibaiaren ezker aldeko ertzeko pasealekua zikindu egiten da. Egoera horren berri eman zuten erabiltzaileek eta Uraren Euskal Agentziaren Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoak, ohartaraziz saneamendu proiektu bat egin behar dela.

colector es muy deficiente con entrada de gran cantidad de aguas pluviales, roturas etc, provocando en aguas altas la salida de agua y residuos sólidos ensuciando el paseo existente en la margen izquierda del río Oria. Esta situación fue advertida por los propios usuarios y por la Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales de la Agencia Vasca del Agua, que indicaron la necesidad de acometer un proyecto de saneamiento.

Xede horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2010. urtean, Fraisoro finkaren saneamenduaren proiektua idatz zezan eskatu zion Altair Ingeniería & Arquitectura SL enpresari. Agiri honetan erabakitzen dira Fraisoro finkako saneamendu sistema Oria Erdiko interzeptorearekin baldintza egokian lotzeko egin behar diren obrak. Hala, proiektuko lanen bidez zera egin nahi da: egoera txarrean dauden zatiak konpontzea; egungo kolektore orokorrean jasotzen diren euri urak bereiztea; eta hondakin urak Oria Erdiko interzeptorearekin lotzea. Horretarako, jarduera puntual batzuk erabaki dira egungo kolektorera, egoera txarrean dauden puntu batzuk konpontze aldera, eta bigarren mailako bi kolektore egingo dira (Uliazpi kolektorea eta laborategi kolektorea), zentro horietatik datozen euri urak egungo kolektoretik ateratzeko.

Con este objeto, en el año 2010 la Diputación Foral de Gipuzkoa encargó a Altair Ingeniería & Arquitectura, S.L. la redacción de un proyecto de saneamiento para la finca Fraisoro. Este documento aborda la definición de las obras necesarias para la conexión del sistema de saneamiento existente en la finca Fraisoro con el interceptor del Oria Medio en condiciones adecuadas. Por este motivo, los trabajos que se incluyen están destinados a la reparación de los tramos en estado deficiente, la separación de las aguas pluviales que se encuentran incorporadas en la actualidad al colector general y la conexión de las aguas residuales con el interceptor del Oria Medio. Para ello se han definido una serie de actuaciones puntuales en el colector actual con el objeto de reparar puntos defectuosos, y se han definido dos colectores secundarios (colector Uliazpi y colector Laboratorio) con el objeto de sacar las aguas pluviales procedentes de estos centros del colector actual.

Fraisoro errekatik datozen urak kolektorera ez eramateko eta egungo kolektorea kentzeko, aurreikusi da albo bat irekitzea urak ibar naturalera husteko. Ibarraren behe aldeak gaur egun duen itxura andeatua dela-eta, proiektuan jasota dago zati hori egokitzea, modu honetan: batetik, uholdeentzat berriazko isurbide bat prestatzea, trapezoide itxurako zeharreko sekzioa izango duena, eta, bestetik, isurbide inguruari erantsita, plataforma bat egitea, ibarraren behe aldean gaur egungo plataforma ordeztuko duena. Ur zikinen kolektore berria plataforma horretatik joango da, eta kokapen egoki bat izango du, erreka urak ez daitezen sartu kolektore orokorrean. Proiektuaren aurrekontua 110.105,45 euro da (BEZa barne) eta obrak egiteko epea bi hilabete.

Con el objeto de evitar que las aguas provenientes de la regata Fraisoro sean incorporadas al colector, además de la anulación de la incorporación actual, se ha previsto la apertura de un lateral para su desagüe a la vaguada natural. Debido al aspecto degradado que presenta en la actualidad la parte baja de esta vaguada, el proyecto recoge el acondicionamiento de este tramo, consistente en la creación de una zona para desagüe específica para el desagüe de avenidas, con sección transversal de forma trapezoidal y creación de una plataforma anexa a la zona de desagüe por la cual discurrirá el nuevo colector de fecales, que sustituirá al existente en la parte baja de la vaguada, con una disposición adecuada para evitar la entrada de aguas procedentes de la regata al colector general. El presupuesto de este



proyecto asciende a 110.105,45 euros (IVA incluido) y contempla un plazo de ejecución de 2 meses.

Obra horiek finantzatzeko eta gauzatzeko lankidetzara esparru bat ezartze aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Uraren Euskal Agentziak hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, klausula hauei jarraituz:

A fin de establecer un marco de colaboración para la financiación y ejecución de tales obras, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Agencia Vasca del Agua acuerdan formalizar el presente Convenio de Colaboración conforme a las siguientes

KLAUSULAK

Lehenena.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da arautzea zer baldintzen arabera gauzatuko den Gipuzkoako Foru Aldundiaren –Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako departamentuaren bitartez– eta Uraren Euskal Agentziaren arteko lankidetzara, zeinaren xedea den Fraisoro finakako saneamendu obrak finantzatu eta gauzatzea, Altair Ingeniería & Arquitectura SL enpresak idatzitako proiektuaren arabera eta ehun eta hamar mila ehun eta bost euro eta berrogeita bost zentimoko (110.105,45) exekuzio kostuarekin.

Xede horren barruan sartutzat joko dira sor daitezkeen proiektu osagarriak eta hasierako proiektuaren aldaketak, seigarren klausulan jasotzen den moduan.

Bigarrena.- Obrak kontratatzea eta gauzatzea

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak – Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren bitartez–, bere gain hartzen du lehen klausulan aipatutako lanak kontratatzeko tramitazio administratiboa egiteko ardura, lanak hasten direnetik hartzen diren arte. Lanen zuzendaritza teknikoaz ere arduratuko da.

2.- Foru Aldundiaren eginbeharrak dira, era berean, baimenak eskuratzea, eta, oro har, lanak zuzen eta osorik burutzeko bete behar diren tramite guztiak betetzea.

3.- Agentziak dokumentazioa eta informazioa

CLAUSULAS

Primera.- Objeto del Convenio.

Es objeto del convenio regular las condiciones de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, y la Agencia Vasca del Agua para la financiación y ejecución de las obras de saneamiento para la finca Fraisoro, con arreglo al proyecto redactado por la empresa Altair Ingeniería & Arquitectura, S.L., con un coste de ejecución de ciento diez mil ciento cinco euros con cuarenta y cinco céntimos (110.105,45).

En dicho objeto se consideran incluidos los posibles proyectos complementarios y modificados del proyecto inicial, tal y como se recoge en la cláusula sexta.

Segunda.- Contratación y ejecución de las obras

1.- La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del Departamento Medio Ambiente y Ordenación Territorial, se compromete a llevar a cabo la tramitación administrativa para la contratación de las obras objeto de la cláusula primera, desde su inicio hasta su recepción, siendo responsable, asimismo, de la dirección técnica de las obras.

2.- Corresponde asimismo a la Administración Foral la obtención de los permisos y autorizaciones necesarios y, en general, el cumplimiento de todos los trámites precisos para la correcta y total ejecución de las obras.

3.- La Agencia podrá solicitar la documentación e



eskatu ahal izango du, eta egoki irizten dituen edozein motatako ikuskaritzak, kontrolak eta fiskalizazioak egin ahal izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak egindako ekarpena egoki bideratu dela eta ekarpena egiteko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

4.- Obrak onartzerako ekitaldian Uraren Euskal Agentziako teknikari bat izango da, emandako laguntzaren xedea egokia fiskalizatzeko helburuarekin.

5.- Jarduketak hasten diren unetik bertatik, obren karteletan, iragarkietan eta beste edonolako seinaleetan Agentziak finantziazioan esku hartzen duela azaldu beharko da.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpen ekonomikoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du aipatutako azpiegitura hidraulikoa egitea finantzatzeko, 55.052,73 euroan (exekuzio kostuaren %50), 2014ko ekitaldiko ordainketa kreditu baten kargura.

Laugarrena.- Uraren Euskal Agentziaren ekarpen ekonomikoa

Uraren Euskal Agentziak, berriz, gehienez 55.052,72 euroko ekarpen ekonomikoa egingo du (aipatutako exekuzio kostuaren % 50), 2014ko ekitaldiko ordainketa kreditu baten kargura.

Bosgarrena.- Ekarpenen zertarakoa eta ordainketa.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren laguntzaren zenbatekoa bakar-bakarrik erabili ahal izango da gauzatze arruntaren ondoriozko kostua finantzatzeko. Ondorioz, kontratazio-organoari dagozkion kontratuko betebeharrak ez betetzeagatik sor litezkeen kopuruak ezingo dira ekarpen horrekin ordaindu, eta horien artean,

información y efectuar las inspecciones, controles y fiscalizaciones de cualquier naturaleza que estime oportuno para la determinación del adecuado destino de la aportación de la Administración de la Comunidad Autónoma y del cumplimiento de las condiciones en que se otorga.

4.- Al acto de recepción de las obras asistirá un técnico de la Agencia Vasca del Agua con el fin de fiscalizar el adecuado destino del auxilio prestado.

5.- Desde el inicio efectivo de las actuaciones, en los carteles identificativos, anuncios y cualquier clase de señalización referente a las mismas se hará constar la participación de la Agencia, en la financiación.

Tercera.- Aportación económica de la Diputación Foral de Gipuzkoa

La Diputación Foral de Gipuzkoa se compromete a financiar la ejecución de la infraestructura hidráulica indicada en un importe de 55.052,73 euros, equivalente al 50% de su coste de ejecución, con cargo a un crédito de pago del ejercicio 2014.

Cuarta.- Aportación económica de la Agencia Vasca del Agua.

La Agencia Vasca del Agua procederá por su parte a realizar una aportación económica máxima de 55.052,72 euros, equivalente al 50% del referido coste de ejecución, con cargo a un crédito de pago del ejercicio 2014.

Quinta.- Destino y pago del auxilio que compromete la Agencia Vasca del Agua.

1.- El importe del auxilio de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco sólo podrá destinarse a la financiación del coste derivado de la normal ejecución de las obras. En consecuencia, no serán abonables con cargo al mismo aquellas cantidades que pudieran devengarse del incumplimiento de las obligaciones contractuales que incumben al



besteak beste, zuinketa gaizki egiteari, lur-eremuak erabiltzeko moduan ez egotearen ondoriozkoei edo ziurtapenak berandu ordaintzearen ondoriozkoei, zein finantzazio-kostu, lur-eremuak erosteko, proiektuak idazteko, obren zuzendaritza, ikuskaritza eta zaintza eta abarrei dagozkienak.

2.- Ekarpenaren ordainketa, onartutako ziurtagiriak Agentziara igorri ondoren egingo da; Foru Aldundiari, urteko aurrekontuari dagokion ziurtagiri bakoitzaren proportzioa ordainduko zaio, kontratazioaren zenbatekoa agortu arte, hirugarren klausulan ezarritako muga handienarekin.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketa Departamentuak ezin izango du inondik inora ere kontratistei egin beharreko obra-ziurtagiriaren ordainketa baldintzatu, Uraren Euskal Agentziari dagokion ekarpenaren aurretiko transferentzia dela eta; horrenbestez, Partzuergoak kontratistei, berandutzan erori ez daitezen, epe barruan ordaindu beharko die; behar den garaian ordaintzen ez badu, egotzi dakizkiokeen kalteen erantzule izango da.

órgano de contratación, entre las que se refieren las ocasionadas por un incorrecto replanteo, las derivadas de la falta de disponibilidad de los terrenos o las derivadas del tardío pago de las certificaciones, entre otras, ni tampoco otros conceptos diferentes tales como costes financieros, de adquisición de terrenos, de redacción de proyectos, dirección, inspección y vigilancia de obras, etc.

2.- El pago de la aportación se realizará previo traslado a la Agencia de las certificaciones aprobadas por la Diputación hasta agotar el importe de la contratación, con el límite máximo de aportación establecido en la cláusula cuarta.

3.- En ningún caso el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá condicionar el pago de certificaciones de obra a los contratistas a la transferencia previa de la aportación que corresponda a la Agencia Vasca del Agua, debiendo dicho Departamento, por tanto, efectuar los pagos a los contratistas en los plazos adecuados para evitar la incursión en mora y siendo responsable, en caso de no hacerlo, de los perjuicios que puedan irrogarse.

Seigarrena.- Kontratuaren gorabeherak

Esleipenaren prezioan eragin ekonomikoa duten kontratuko gorabeherak, hala nola likidazio zenbatekoak igotzea, prezio berrikuspenak, ezarpen tipoak aldatzea, etab., eta baita proiektu aldatuak eta proiektu osagarriekin lotutako lanak egiteagatik sortutakoak ere, alderdi bakoitzak onartutako portzentajearen arabera eta aurreko klausuletan araututako baldintzetan finantzatzuko dira, kontratuen behin betiko esleipeneko beherapenen ondorioz lortutako kreditu soberakinen edo ekonomien kargura batez ere. Bide horretatik lortutako funtsik ez badago, bi alderdiek beren gain hartuko dute hasieran hitzartutako aurrekontu konpromisoak gainditzten dituen gastu gehikuntza, bakoitzak dagokion portzentajearen arabera.

Sexta.- Incidencias contractuales.

Las incidencias contractuales con repercusión económica sobre el precio de adjudicación, tales como exceso en liquidación, revisiones de precios, cambios de tipos impositivos, etc., así como las derivadas de la ejecución de proyectos modificados y de la ejecución de obras relativas a proyectos complementarios, serán financiadas conforme al porcentaje asumido por cada una de las partes, y en las mismas condiciones reguladas en las cláusulas anteriores, preferentemente con cargo a los créditos sobrantes o economías obtenidas por bajas en la adjudicación definitiva de los contratos; y caso de no existir fondos de esta naturaleza, ambas partes asumirán el incremento de gasto que exceda de los compromisos presupuestarios inicialmente convenidos y de conformidad con su



porcentaje respectivo.

Betiere aldeen aurrekontu-baliabideen arabera.

Todo ello siempre en la medida de sus disponibilidades presupuestarias.

Zazpigarrena.- Hartu beharreko lursailen kudeaketa

Séptima.- Gestión de los terrenos de necesaria ocupación.

Alderdi izenpetzaileek adierazi dute elkarlanean aritzeko borondatea dutela, nork bere eskumenen eremuan, obrak egiteko hartu behar diren lursailen eskuragarritasuna kudeatzen.

Las partes firmantes manifiestan su voluntad de colaborar, dentro de sus respectivas competencias, en la gestión de la disponibilidad de los terrenos de necesaria ocupación para la ejecución de las obras.

Zortzigarrena.- Jardunen Jarraipenerako Batzordea.

Octava.- Comisión de seguimiento de las actuaciones.

1.- Hitzarmen honen jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau ordezkari osatuko dute. Bi Uraren Euskal Agentziakoak izango dira eta beste bi Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentukoak. Hitzarmena sinatzen duen alde bakoitzak izendatuko ditu bere ordezkariak, honako eginkizun hauetarako:

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y otros dos del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Esleipen-proposamena egin aurretik, aurkeztutako eskaintzak aztertzea.

a) Analizar las ofertas recibidas con anterioridad a la formulación de la propuesta de adjudicación.

b) Hitzarmen honetan aurreikusitako obrak behar bezala burutzen ari direla egiaztatzeko jarraipena egitea, eta, horretarako, bi erakundeek bata bestearen informazioa izan dezaten eta elkarrenganako konpromisoak behar bezala bete ditzaten irizpide eta moduak ezartzea.

b) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

c) Lan bakoitzerako behar diren izapideak agudo egiteko oztopoak kentzen saiatzea.

c) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

d) Hitzarmen honen gai diren jardunak burutuko direla bermatzeko behar diren txostenak egin eta neurriak proposatzea, batez ere, urtekoak egokitu beharreko kasuetan eta seigarren klausulan jasotakoetan

d) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades y en los recogidos en la cláusula sexta



e) Hitzarmenak ekar ditzakeen interpretatzeko eta burutzeko arazoei irtenbideak ematen saiatzea.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta edozein aldetako ordezkariak hala eskatzen badu, batzordea jardunak ondo joan daitezen behar den guztietan elkartuko da. Bilkura egiteko kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

Bederetzigarrena.- Obrak hartzea eta ustiatzea

Egindako obrak behin kontratistak eman eta gero, horren berri emango zaie saneamenduaren gaur egungo erabiltzaileei, oraingo kudeaketa erregimenaren arabera ustiatu eta mantendu dezaten.

Hamargarrena.- Izaera eta erregimen juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta herri administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmenei aplikatzen zaien ordenamendu juridiko administratiboak zuzenduko ditu haren interpretazioa eta garapena.

Esku-hartzen duen alde bakoitzak, hitzarmenaren indarrez dagozkion konpromisoen erantzukizunak bakarrik hartzen ditu bere gain.

Hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auziak, Administrazioarekiko Auzietarako jurisdikzioaren ezagutza eta eskumenekoak izango dira.

Hamaikagarrena.- Indarraldia, iraungipena eta ez betetzeak

Hitzarmen honek onartzen denetik sortuko ditu ondorioak eta behartuko ditu parte hartzaileak, eta jarduketa planetako jardueren kontratua amaitu arte iraungo du.

Hitzarmen hau iraungiko da aurreko klausulan aipatutako indarraldia amaitu delako edo hitzarmena hautsi delako.

e) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta del representante de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

Novena.- Entrega y explotación de las obras

Una vez recibidas del contratista las obras ejecutadas, se comunicará tal hecho a los actuales usuarios del saneamiento para su explotación y mantenimiento con arreglo al régimen de gestión actual.

Décima.- Naturaleza y régimen jurídico.

El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

Cada parte interviniente asume únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contrae en virtud del presente convenio de colaboración.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en su interpretación y cumplimiento serán de conocimiento y competencia del orden jurisdiccional de lo Contencioso-Administrativo.

Undécima.- Periodo de vigencia, extinción e incumplimientos.

El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la liquidación de la contratación de las actuaciones recogidas en los sucesivos planes de actuación.

El convenio se extinguirá bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior o por resolución.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio



Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdiaren esku egongo da haiek zehatz-mehatz bete daitezen edo hitzarmena hautsi dadin eskatzea. Hitzarmena hausten bada, bi alderdiek erabakiko dute zer baldintzatan amaituko den, eta hasita dauden lanak nola ordainduko diren, baita horiek egin ondoren –egingo balira–, nola emango diren ere.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y, en su caso, para la posterior entrega de las mismas.

Eta esandako guztiarekin bat datozela agertzeko, bi alderdiek izenpetu egiten dute, bi aletan, esandako egunean eta tokian.

Y en prueba de conformidad con lo establecido lo firman los comparecientes en duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados.

**INGURUMENEO ETA LURRALDE
ANTOLAKETAKO FORU DIPUTATUA,
EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACION DEL TERRITORIO**



Iñaki Errazkin Vitoria

**URAREN EUSKAL AGENTZIAREN
ZUZENDARI NAGUSIA
EL DIRECTOR GENERAL DE LA
AGENCIA VASCA DEL AGUA**



Iñigo Ansola Kareaga